Kaixo lagunok,

Oraingo honetan berri pozgarria dakarkizuegu: Myrtha Chokler prest agertu da Asefopeko eskoletan Psikomotrizitateko Laguntzari buruzko prestakuntza-ikasketak egin dituztenei ikastaroa eskaintzeko, bakar-bakarrik ikasle horiei. Aukera bikaina inondik ere.

Data kontua lotzeko galtza bete lan. Izan ere, Etengabeko Prestakuntza egituratzen ari gara eta hor zegoen tarte bakarra bat zetorren Hezkuntzari buruzko Etengabeko Prestakuntzan Mª Jose Intxaustik eman behar duen mintegiarekin.

Horrexegatik , bada, mintegi horrekin uztartu behar izan dugu Myrtha Choklerren ikastaroa. Beraz, maiatzaren 28an, 9:30etik 13:30era izango da hezkuntza arloko mintegia (matrikularen prezioa: 30 €) eta Myrtha Choklerrenak bi egun hartuko ditu: maiatzaren 28an, larunbata, 15:00etatik 19:00ak arte eta maiatzaren 29an, igandea, 9:00etatik 14:00ak arte (matrikularen prezioa: 90 €).

Parte hartzen animatuko zaretelakoan gaude, izan ere, aparteko aukera daukagu profesional handi horrekin gu bakarrik egoteko. Myrtha Chokler Psikologian eta Fonoaudiologian doktorea da, Cuyoko Unibertsitatean irakasle-lanetan ari da eta Europa mailan oso zabalduta dago bere lana. Honegatik edo besteagatik baldintza normaletan bizi ezin diren umeei begira ari da lanean aspaldiko urteetan. Ezaguna da gure praktikarekin eta Pikler-Loczy mugimendu pedagogikoarekin duen lotura. Era berean, berak egindako ekarpenak ere gora handikoak dira, “garapenenaren antolatzaileak” eta beste hainbat.

Ikastaroan gai hau jorratzeko eskatu diogu: umea jaio eta lehendabiziko urtean sor daitezkeen zailtasunak, psikomotrizateko laguntzan adituak direnentzako baita mintegia. Izenburua: “Garapenaren ikuspuntutik, bizitzako lehendabiziko urtean sor daitezkeen zailtasunak eta zailtasun horiek ulertzea".

Laguntzari buruzko Etengabeko Prestakuntza sortu berriari buruzko zertzeladen gaineko informazioa bidaltzen jarraituko dugu. Elkar ikusiko dugulakoan,

Begirunez agur.

PD: Ahaztu barik, berriro izango dugu Myrtha Choklerrekin egoteko aukera. Oraingo honetan Gasteizko Psikomotrizitate jardunaldian, azaroaren 4-5-6ko asteburuan, baina beste gai batzuk jorratzeko. Jardunaldiko egitaraua prestatzen ari gara. Hainbatean gai hau izango dugu hizpide: “Gorputza eta Psikomotrizitateko praktika”. Laster izango duzue gure berri

ASEFOP

UNED BERGARA

L U Z A R O
PSIKOMOTRIZITATE ESKOLA

Pza. San Martín 4 - 20570 Bergara

LAGUNTZAKO ETENGABEKO FORMAKUNTZA:
FORMACIÓN CONTINUA DE AYUDA:

(LAGUNTZAKO IKASLEEI ZUZENDUTA/DIRIGIDO AL EX-ALUMNADO DE AYUDA)

Titulo: "Dificultades que pueden surgir en el desarrollo en el 1er año y su comprensión".

IRAKASLEA/*PROFESORA:* **MYRTHA HEBE CHOKLER**

Egunak/*Días*: **Maiatzak 28 eta 29**

Ordutegia/*Horario*: **Larunbata/sábado 28: 15:00-19:00**

Igandea/Domingo 29: 9:00-14:00

Tokia/*Lugar:* **Uned-Bergara**

Matrikula: **90€**

Dirua sartzeko / Ingresar: Euskadiko Kutxa (Caja Laboral): 3035 0009 15 0090087707

LAGUNTZA ETENGABEKO FORMAKUNTZA 2011 **INSKRIPZIO TXARTELA**

Abizenak _____ **Izena** _____
Apellidos *Nombre*

Helbidea _____ **Telefonoa** _____
Dirección *Teléfono*

e-mail _____

Herria _____ **p.k.** _____ **Herrialdea** _____
Ciudad *c.p.* *Provincia*

Ogibidea _____ **Lan tokia** _____
Profesión *Lugar de trabajo*

Bidali txartel hau ordainketa froga agiriarekin batera/Enviar esta ficha con el justificante de pago.

LUZARO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLA .UNED. San Martin plaza, 4. 20570-Bergara